

# **ZESTONA**

MANUEL LEKUONA

Zestona'ren, Zestua'ren bizitzako gertakari bat, pasadizu bat, kontatu bear degu.

Zestona'ren bizitza, oso luzea da; Prehistoriatik datorrena; eta bizitza luze ortan, guk iru gertakari arkitzen ditugu, oso kontagarriak:

1) *Prehistoriakoa*, «Ekain» esan ditekera;

2) *Protohistorikoa*, «Anónimo de Rávena» esan ditekera (1), bere kronika labur-laburrekin: «Cistonia —bait dio— Cistonia.ad Devam fluvium versus»; eta

3) *Historiakoa*; Errege Jaunaren itzez «Santa Cruz de Cestona» esan ditekera.

---

(1) «El anónimo de Rávena». deritzan. antziña-antziariako Geografoak. bere Liburuko beste izen askoren artean, gure Zestona'rekin antza aundia duan izen bat dakar.

Izena. «Cistonia» da; «Zestona»rekin antz aundia duana, ageri denez. Eta. orregatik utsagatik, gure «Zestona» ote dan sospetxa sortu dezakeana.

Bañan ez bait da izenaren antza bakarrik: izena datorren textoak ba du bere kontextoa; eta kontextu ortan «Deva» ibaia aipatzen da, Cistonia ori nontsu dagon aditzera emateko; detalle orrek sinistagarri egiten bait du. esan degun sospetxa.

Textoa, kontextoarekin ola da:

«Cistonia. Ad Devam fluvium versus».

«Cistonia» Deba ibai aldera dagola esan nai bait du. (Ez dio Deba'n dagonik; *Deba-aldera* baizik. Eta ori, ola da).

Itxura denez, Ravena'ko anonimoak, bere Geografiako erri-illararak aipatzen ari delarik, Cistonia'ra iristean, erria nontsu dagon esan nai digu; zein aldera («versus») Deba Ibaira gozela alegia..

Gañerakoan, olako Geografi-troxoak —troxu galduak— Geografi oso batean nola arki litezken konturatzeko, gure Ikastolaen eta Ikaskuntzaren Historian bertan ba ditugu pasadizu batzuek, gauza nola litekean explikatuz lezatekenak.

Euskalerriko Ikastolaetan beti ere oso gogoz ikasi izan dan gauza, Geografia izan da; erri-illararak memoriaz ikasi, alegia; besteak beste «tabla de multiplicar» memoriaz ikasi izan dan bezela —kantuan, buruz—.

Guk «Ekain» gaia, prehistori-zaleentzat utziko degu.

Eta «Ravena'ko» anonimoarena», protohistori-zaleentzat.

Eta irugarren gaiari erantsiko diogu gure kotxarea: Zestona Erri Bildu sortu zaneko Historiari, bere contextoan; aurten betetzen bait dira, ain zuzen, SEIREUN urte, gertakari ori gertatu zala, gaurko egunez ain zuzen: gaur seireun urte.

Eta beste gabe, asi dezagun gure egitekoa.

Seirun urte dira aurten, Zestona'ko Erria sortu zala: 1383.

Ola esan oi da.

Zer esan nai du, ordea, esaera orrek? «sortu» esaerak zer esan nai du? Urte ura baño leenago ez al zan ezer, orain Zestona dagon ontan? Ez al zan bizi iñor, gaurko Zestona'ren Jeografian? Dana basamortu al zan?

— Ez iñolaz ere. Iñor batzuek bizi ziran —eta ez nolanaikoak; gero ikusiko degu—; beste izaera batean bizi zirala, ezik; eta orduan gaurko eran bizi izaten asi. Ori esan nai du «Zestona sortu» itzak.

Leen «Erri Banatuan» bizi zirala; eta orduan «Erri Bilduan» bizi izaten asi.

Eta horretaz gañera, leen «Artzai-bizieran»; eta gero «Nekazari-bizieran».

Bi diferentzi, bi nolakotasun: «banatu-bildu» diferentzi politikoa; «artzai-nekazari» diferentzi «soziala».

Guk geurok ezagutzen degu olako «rezitatu» bat Geografiazko «rezitatu» bat, Donostia'tik asita, Bermeo'rañokoa, Gipuzkoa'ko kosta-erriak —den-denak ez baño— aipatzen dituana; leen iñoiz memoriaz kantatzen zana, eta urteen buruan troxuren bat edo beste galdu zaizkiona... Ravena'ko textoari ere galdu zaizkion bezela... Bañan. Jaunak ala nairik, gure Cistonia kontserbatu zaiona. Onela bait dio gure testoak:

San Sebastian de la guerra,  
Olio Debakan,  
Ziar de montaña,  
ni Eskutari,  
Motriko dantzari,  
Ondarrian zapi zar,  
Lekaita Mendizar,  
Blantxo, Blantxo,  
por acá  
por amor de Dios.

Ageri danez, gauza naiko zarpildua arkitzen da; eta interpretamen zerbait bear du. Ez da arritzeko.

Auskalo zenbat urte dituan, guk umetan ikasi genduan formula orrek. Guri gure amona zanak —Tomaxa Intxaurandietak— erakutsi zigun. Eta memoriaz kantatzen zigun. Ola ez da arritzeko txoxuren batzuek galdu izana. Ravena'n ere beste orrenbeste gerta bait zitekean. Elementuren batzuek galdu bañan dana ez, zerbait kontserba. Cistonia gure Zestona'n.

Interpretamenik gogorrena, rezitatuaren azkeneko itzena da.

Izaera politiko berria, «ofizialki» Erregek eman zizuten: Lenengo Don Juan'ek. Eta gaur seireun urte eman ere. Ori da gaur gogoratzen dezuten gertakaria: nahiko gertakari gogoangarria.

Urte oiek baño leenago, «Artzai-erri ziñatela esan degu. Konkretuki, Artzai-erri ori, Aizarna zan. Eta orain seireun urteko fetxa artan, Aizarna'ren barruko juridikzio aundian *SANTA KRUTZ* zeritzan puntu batean, bertako jendeak ala eskatuta, eta Errege Jaunak ala opata, sortu zan gaurko ZESTONA-itz errikoiez *ZESTUA* esan oi dana. Eta sortu ere, artzantza utzi gabe, denbora berean nekazaritzan bizi izateko xedean. Leen baserri, erri banatu zana, orain, baserri izatea utzi gabe, zati batean «kale-erri», Erri Bildu.

Ikusten danez, «Erreorganizazio» aundi ta naiko sakona. Orduko giza-giroak, eskatu, eskatzen zuan Erreorganizamen sakon ta aundia.

Gauza onen argigarri, gauza jakiña da, Etnolojia ikasten dabilzanentzat, gizadia lurraren gañean azaldu zanean, orain milloika urte, orduko gizona eiztaria zala —eiztaria edo «biltzallea»— munduan berez sortzen daretik bizi izaten zana; eizatik eta berezko uztatik —basauntz, basaidi; gaztain, ur, intxaurr.

Gero biurtu bait zan artzai, basa-aberea ganadu biurtuaz: basa-auntza «auntz», eta basa-ardia «ardi» etab.

Eta orren ondoren gizona nekazari biurtzen da, lurra landuaz uzta ugarriak lortzeko.

Eboluzio tarte ortan sortu ziran Aizarna ta Zestona. Aizarna auskalo zenbat milla urte.

Zestona, esan dugu, gaur seireun urte.

---

Lekeitio'ren ondorengo «Blantxo» ori, Elantxobe dala ez dago dudarik. Eta urrengo «por acá» ori, «Mundaka» da dudarik gabe. Eta ondorengo «por amor de Dios» ori. «Bermio»ren zerbait izan bear du; «por amor» ez dakigu nola, bañan, «de Dios» ori, guiretzat «Bermio» da.

Gipuzkoa'ko troxuan gauza garbiago dago; Bizkai'koan naasten da ausarki.

Ala ere Gipuzkoa'ko partean utsune bi ba ditu, naiko nabarmenak: Zarautz'ena eta Zumaya'rena.

Interpretamen bearra, Getaria'n dago aundiena; «Eskutari» esaten bait du, silaba bat sobra duela garbi-garbi.

Motriku'ri, berriz, eztakigu zergatik erasten dion «dantzari» dion eraxkun ori.

Lekeitio'ren ondoko «Mendixar» ori, «Mendexa» da dudarik gabe: Lekeitio erriaren garaiko aldean dagon erriska, Mendexa.

Ondarroa'ko «zapi zar» orrek zer dakarren, ere, ez dakigu.

Iziar'en ondotiko «montaña» ere naiko illuna gertatzen da.

Bañan bear bada, ez ain illuna, Donostia'ri erasten dion «de la guerra» ori. Beste nunbait ere esaten bait da gauza bera; eta seguru asko Donostia beti ere Plaza Fuerte» izan dalako.

Gañerakoan, asieran, Oriotik Daba'ra egiten duan saltoa (Olio Debakan) ez dakigu zergatik egiten duan.

## ERREGEAK ERRI BILDUAK SORTZEN

Gaurko au bezelako jaietan, beti ere, gauza bat ikusten degu: Kastilla'ko Errege batek sortzen duala Erri bat gure artean.

Zer zuan zer-ikusi Kastilla'ko Errege batek, emen Erri Bildu bat sortzeko? Zer eskubide zituzten Erregeak ortarako?

Argi dezagun puntu au.

Gure bizitza politikoan, gure errejimen politikoan, goren-gorenean, Instituzio-Organismo «soberano» bat genduan guk: gure Batzar Nagusiak *Juntas Generales*: zala Gernika'n Bizkai'an, zala Arriaga'n Araba'n, zala txandako emezortzi errietan batean, Gipuzkoa'n, edo Ustaritz'en Beste Aldean. Organismo soberanoa, gure Batzar Nagusia; Errege «soberanoa» baño gorago zegona: Bizkai'an Bizkai'ko Jauna kentzeko eskubidea zuena: D. Tello, ala D. Pedro; Araba'n Kondea: Konde Fernan Gonzalez ala bes-teren bat; Gipuzkoa'n Nafarroa'ko Santxo Sendo ala Gaztela'ko Alfontso VIII. Jaunak eta Kondeak eta Erregeak baño goragoko Organismo politiko bat: Batzar Nagusiak. Urtean bein, dozena bat egunez batzartzen ziran Batzar Nagusiak.

Batzar Nagusi aien mendean, ordea, ba ziran beste beeragoko Batzorde batzuek ere: urte guztian irauten zutenak, «de carácter administrativo» esan zitezkeanak: «Diputado General» esaten zitzaiona bat eta «Correjidore» esaten zitzaiona bestea, bañan Erregeak batez ere, «Ministro de la Guerra» eta «Ministro de la Justicia» esan zitezkeanak; Gerra-gauzetarako eta Justizi-gauzetarako: Batzarraren mendean, ejetutivo-administrativo bezela, alegia.

Erregeak, beren egitekoa bear bezala egiteko, eskubide ta fakultade berezi batzuek ba zituzten; eta aietan bat, oso garrantzi aundikoa: Erri Bilduak sortzeko fakultadea: Erri Bilduak, beren Tribunal eta Kartzelakin.

Gerrarako Gazteluak eta Plaza Fuerteak bezela, Justiziaren garantira-ko bear ziren Erri Bilduak sortzeko eskubidea — eskubide delegatua, Batzar Nagusien mendean.

Ortik zetorkien Erregeai, Erri Bildu Villak sortzeko eskubidea; «Fundación de las Villas» esan zaiona egiteko eskubidea. Orain seireun urte, zuen Zestona sortzeko D. Juan lenengoak izan zuan bezela. Gipuzkoa'ko Batzar Nagusiak emanda.

## ERREGEREN KARTA

Bere Karta baten bitartez eman bait zuan Erregek ortarako Ordena.

Irakurri dezagun Errege Jaunaren Karta.

Don Juan Lenengoarena da.

Segobia'n firmatua dago. Gaur seireun urte, 1383'an, Agorra'ren 15'ean.

Entzun dezagun.

«Jaungoiko Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean etab.

Erregeen esku dago, ala konbeni dala derizkioten errialdeetan mesede aundiak egitea, beren aintza aundirako izan dakien, batez ere erriberri-kartak emanaz, jende berriak errialde batera etorri ditezen, eta Erri Berriak sortuaz, orrela beren Erregeedia azi ta edertu dedin, gauza orren berriak munduan beti irauten duala.

Orregatik Nik, Jaungoikoari eskerrak Kastilla'ko etab. Errege naizen Don Juan onek, mesedeak egiñez, gure Erregeedia aundiagotu naiez, nere serbitzu aundirako gero-ta aundiago egin dedin, eta Aizarna'ko Parrokiako Aitunen Semeai eta Gizon Onai mesede egin naiez, eta Aizarna'ko Aitunen Semeak eta Gizon Onak ala eskatu didatelako, esan bait didate, berak ezin bizi ditezkeala Parroki artan, kalte aundiak artu izan dituztelako eta egunoro artzen dituztelako inguruetako zenbait Zaldun eta Eskutari indartsuengandik:

eta ortaz gañera Nafarroa'ko eta Kaskuña'ko mugetan bizi diralako, eta iñoiz lurralde artan gerrarik gerta baledi, ezin defendi bait litezke;

eta eskatu didate baimen-eman dezaiedala, esandako Aizarna'ko Santa Maria'ren Parroki artan Erri Bildu bat egiteko, berak an ondo defenditu-ta bizi ditezen, nere serbitzuak eskatzen duan bezela.

Beragatik, ematen diet baimen, beren Aizarna'ko Santa Maria'ren Parrokiako lurean Erri Bildu bat (Villa) egin dezaten, berai egoteko egokiena derizkioten lekuan,

eta muralla ar-esiz inguratu ere dezatela, berai gure serbitzurako eta beren defentsarako egokiena derizkioen eran, iñungo beste Kontzejuri edo iñori kalterik egin gabe;

eta Erri Bildu berriak «Zestona'ko Santa Krutz» izena izan dezala; eta Erri Bildu ontan bizi izatera etortzen diran Aitunen Semeak, Foru ta Eskubide eta Bereizkuntz izan ditzatela, Azkoitia'ko Miranda-Iraurgi'ko Aitunen Semeak dituzten Foru, Eskubide eta Bereizkuntzak;

eta Aitunen Semez beste, Erri Bildu berean bizi izatera etortzen diranak, izan ditzatela, Gipuzkoa'ko beste Erri Bilduetakoak dituzten Foru, Eskubide eta Bereizkuntzak;

eta jarri ditzatela beren Alkateak, Juraduak, Eskribauak eta gañerako Ofizialeak, bear dituzten neurrian eta Gipuzkoa'ko beste gure Erri Bildu Villak dituzten era berean;

eta beren auzietan Alzada edo Apelazio egin bear danean, Gasteitz'era egin dezatela;

eta obedi ditzatela gure Kartak eta gure Aginduak;

eta gerra-garaian osa ditzatela gure Enplazamentu eta guda-deiak;

eta beren sal-erosketan erabilli dezatela gure Txanpona;

eta gu Erregeok bidez gabiltzanean, artu gaitzatela ostatur beren Erri Bilduan, gu eta gure ondoren etorriko diran beste Erregeak, Errira iristen geranean, dala egunez dala gauetz, asko edo gutxi, geranak gerala, zorretan edo kitatuan, goian edo beian;

eta gerra edo pakea, guk agindu bezela egin dezatela, beti guk agintzen diegun bezela edo guk agindduerazi bezela;

eta gañerako gauza guztiak, gure Erreinuko lekuetan egin izan diran edo egin behar diran bezela, legez edo oituraz;

eta guretzat edo gure ondoren etorriko diran Kastilla'ko edo Leon'go Erregeentzat bereizten ditugu urrezko edo zillarrezko edo «urdinezko» minategiak, diranak edo onez aurrera izan ditezkeanak.

Eta guzti onek firme ta sendo iraun dezan, Karta au ematen diet, pergamino narruan idatzai eta nere zintzillikako berunezko silloaz orniturik.

Segobia'ko Batzar-Korteetan emana, Era 1321 (1383'gn. urtean) Agorren 15'ean (Gaur seireun urte juxtu-juxtu).

Nik, Aparicio Rodríguez'ek idatzierazi det, Erregeren aginduz; eta nerekin det gastuaren albala.

Gonzalo Fernandez.

Ikusia: Alvaro, Errege-gauzaen jakitun».

## **KOMENTARIO BAT**

Egin dezagun Erregeren Kartaren analisis arin bat, axial-axalekoa, gauzarik jakingarrienak aipatuaz.

## **ERREGEREN KARTA JORRATZEN**

Erregeren Kartan lenengo aipatzen dan izena, AIZARNA da.

Aizarna Erri Banatua zen; eta «Artzai-erri».

Eta nolana dala, gaurko ta betiko Zestuatarrentzat Aizarna zuen Arri-Ama da. Aren barruan sortu zihaten. Eta ori dala-ta maitasuna zor diozute: umeak amari zor dion maitasun eta itzal-errespetua.

Gero aipatuko degu Artzai-kulturaren aldetik zer-nolakoa zen. Orain Erri Banatu bezela ikutuko degu.

Erri Banatu, Erri bildu.

Erri Bilduak.

Euskalerria, bere Jeografia «humanaz» erri banatua da: baserri-erri, ez kale-erri:

Jeografia humanaz gure Erriak bereizkuntza au du, «hecho diferencial» au. Erdal-erriak kale-erriak dira, erri bilduak, erri moltsatuak; euskal-erriak erri banatu, erri baserri, etxeak mendi-egaletan-da banatuak. «Hecho diferencial» oso nabarmena.

Eta ola gera, nik uste, artzai-erri geralako.

Artzaiak beren txabolak mendian izan oi dituzte —mendian «banatuak»—. Ola da artzaiaren egoera, artzaiaren *habitat*, artzaiaren Kultura.

Egoera ori oraindik indartsuago egiten da Nekazari-Kulturan.

Nekazaritzan soroari guk beti «bazarra» esan izan diogu; eta baztarra ez soroa bera etxearen ondora eraman degulako, kontrara baizik, etxea soroaren ondoan egin degulako, baztarrean.

Soroa mendi-egaletan dago; etxeak ere gure artean bide bera jarraitu du: mendi-egaletara joan da. Gure baserriak tipikoki banatuak daude: soroaren ondoan, baztarrean. Soroa guretzat «bazarra» da.

Gaztela'ko oitura, bestelakoa da. Etxeak elkarren ondoan.

Gure oitura, gure legea «baserri-legea» da. Bañan ala ere, Erregeak Erri Bilduak sortu zituzten ezkerro, gure artean ere sortu da «kale-legea», Elizaren inguruan kaleak; eta Erriko Etxearen ondoan — Kontzejoaren ondoan — Plaza — Pelota-Plaza-eta —; eta orren osagarri, Erria arresiz inguratua, zerkatua, aldiari bein ate arkudunek errira sarrera ematen dutela. Zuen Zestua olaxe bait da.

Zestua Erri Bildu bezela sortu zan.

Aizarna ez. Aizarna Erri Banatu bezela; gero bera ere «kaledun» egin bada ere. Asieran —ez bait dakigu noiz— Erri Banatu.

Erri Banatuak beren izatez ba zuten beren izaera berezia, beren kultura berezia: «Artzai-kultura» esan oi deguna (2).

---

(2) Artzai-kultura oni buruz, ola nion nik, orain ogeitamar urte Atiorga'n eman nuan itzaldi batean —erderaz izan zan nere itzaldia, eta erderaz irakurriko dizutet—. Gizadiaren lau aro -artzantza, nekazaritza, industri-aroa, eiztaritzaz gañera aipatu ondoren- onela jarraitzan nuan:

«Etapas todas cuatro, nada despreciables, aunque el hombre de hoy, con su maquinismo, siente frecuentes tentaciones de desprecio de todo lo que ha precedido a su etapa industrial. No voy a repetir aquí lo que se suele decir con tanta verdad, de la superior categoría que en la escala de la Cultura Humana reviste la Cultura Moral sobre la material, la Cultura del buen trato y la Justicia que regula las relaciones y la convivencia humana, sobre el maquinismo sin más; nada tampoco de la Cultura Artística, que por su naturaleza a mayor altura que la Cul-



Kultura ark, Artzai-kultura zanez, ba zituan bere bereizkuntzak; eta oietan bat, muga-kontua zan. Erriaren mugak gaur «menditik-mendira» izan oi dira: mendiak orain Errien bereizgarri dira; Artzai-kulturán, alde-rantzira, mendiak etziran muga; muga ibaiak ziran. Artzaiaren artaldeak ezin pasa dezake ibaia. Gaur zubietatik pasa oi dira; orduan oso zubi gutzi ziran; gero egin ziran naikoak, alde batetik bestera pasatzeko.

Eta izaera orrek garrantzi aundia zuan artzai-garaian, zuentzat.

Kontu oietan, Aizarna'ren mugak Urola ibaiaraño ziran. Urola ibaitik Itziar-alderako lurra, beste erri bat zan, «Itziar» bear bada. Itziar ere, artzai erria, Urola-ibaian asten zan, eta Deba-ibairaraño luzatzen.

Aizarna jatorra, Urola'n asi eta Ernio-inguru guztiak artzen zituala, Oria-ibairaraño luzatzen zan. bere aldetik: Gipuzkoa'ren erdi-aldean kokaturik.

Aizarna-aldeak Ernio-mendi bizkar-ezur zuan bezela, Itziar'ek Endo-ya-mendia zuan bere bizkar-ezur.

tura puramente material de la Mecánica, de que tanto blasona, sin embargo, el hombre actual. Sólo si indicaremos que los grandes inventos de la Humanidad —por no decir los mayores— pertenecen a estas etapas prehistóricas; los grandes inventos como la rueda, sin la cual la Mecánica actual no existiría; y el formidable invento —precursor del de la Electricidad y la Energía Atómica— que es el invento del Fuego, que, aunque hoy no nos lo parezca, es también un invento del hombre, del hombre primitivo de aquellas atrasadísimas épocas. La rueda y el fuego, son los dos inventos fundamentales en la vida de la Humanidad. Y no lo son del hombre actual. Otros inventos hay —y no poco ingeniosos— que también pertenecen a aquella época, como v.gr. el de la fusión de los metales, y el de los instrumentos cortantes, a base del sílice y el hierro y el bronce; y el no menos ingenioso de la sierra, y el curiosísimo de la tijera y el también ingeniosísimo del punto de calceta además del tejido del lino, por no decir nada del arte de cuajar la leche, para su conservación y aprovechamiento retardado, con tanta ventaja para la economía, y por no citar tampoco el castrado del animal para su mejor utilización en las labores del campo, etc.

Hoy vivimos una época de grandes inventos; pero esto no nos da derecho a despreciar, ni aún desde un punto de vista mecánico al pastor, al hombre prehistórico, inventor inolvidable de hallazgos tan importantes de la Humanidad, aun prescindiendo de las grandes conquistas de aquel hombre en las observaciones de la Naturaleza, del curso de los Astros, y sobre todo en la ordenación del Derecho en la vida civil, que viene a ser la inapreciable contribución tradicional, no escrita, del hombre prehistórico, del hombre pastor, al acervo de las Ciencias Morales y Políticas. que de todo esto hay muchísimo también que es esencialmente prehistórico.

Y recordemos también de paso, que los temas y materiales más interesantes de la Literatura Universal, en cuentos y leyendas —a las que el hombre del Pastoreo debió ser eminentemente afecto—, son temas universales, cuya existencia difundida por todo el mundo, no se explica más que suponiendo, o su origen común o una difusión multiseccular a través de una multitud de siglos de la Prehistoria, que nos precedió. Desde luego, y sin salirnos del ámbito vasco, podemos decir que la maravilla de sus Danzas, por ejemplo, y de su delicadísima Música, amén de su no menos maravillosa Lengua, no son obra histórica, sino eminentemente prehistórica; así como la rara facultad de improvisación en verso de nuestros bertsolaris pertenece, igualmente, a un estadio de Cultura, que en la Prehistoria debía ser general, quizás, a toda la Humanidad, y hoy lo conservan en toda su primitiva pujanza casi solos nuestros humildes, pero dignos de la máxima admiración, improvisadores, los Bertsolaris.

Ola nion, itz gutxitan.

Artzai-erri-señale bezela, beste gauza bat ere esan bear degu: Portuak Artzai-kulturaren zuten garrantzia ta inportantzia; Pirene Mendiren bi aldeak egin zezateken erri bat — Euskalerrria — Portuen bitartez — Belagua-portu, Etxalar-portu —. Orregatik aipatzen dira gure kantaetan orrenbeste aldis mendietako portuak. Artzai-kantak izaki...(3).

## Aaide Nagusiak

Gauza jakingarri bezela, Erregeren Kartak inguru auetako «Zaldunak eta Eskutariak» aipatzen ditu, otsi etxerik-etxe lapurretak egiten ibiltzen ziran, Aaide Nagusiak eta Aaide Nagusien serbitzariak —Eskutariak—.

Bañan, egia esan, ez bait zan ori Zestua'ko kexa bakarrik; urte bere-tsuetan olako lapur-kexak izan ziran baita Segura'n eta Mondrago'en ere. Zestua'ko inguruan, berriz, badakigu, Aaide Nagusi ezazun-ezagunak ba zirala, bost beintzat, Gorosabel'ek aipatzen dituanak: Lasao, Lili, Alzolaras, Iraeta eta Bedua. Nagusiak berak ibiltzen ez baziran ere, aien morroi serbitzariak olako gaixtakerietean ibilli zitezkeanak.

Olako Aaide Nagusien kontra sortu ziran, ain zuzen, Gipuzkoa'n, Erri asko —Erri Bildu—; eta baita Aaide Nagusiak berak, Erri Bilduen kontra Monipodioak egin eta desafioak bota ere.

Orregatik zan, beraz, Zestua'ko kasoan Aizarna'ko Aitunen Semeak eta Erriko Gizon Onak «eskatzea Erregeri» baimen-eman zezaiela Zestua'n Erri Bildu bat egiteko.

Aaide Nagusien kontu orren osagarri aipatu dezakegu guk emen, olako monipodio zerbait, Aizarna'ko eta Zestona'ko eta Aizarnazabal'go Aaide Nagusiak Getaria 'ko Erriarekin egin zutena. Auzotasunezko kontratu bat. Kontratu ortan garbi azaltzen bait dira, Santa Krutz Zestona'ko Aaide Nagusiak. Onela dio, gauza au zala-ta, Zestona sortu-ta andik amaika urtera 1394'gn urtean, Don Endrike III'gnak emandako Karta batek:

---

(3) Artzai-kulturaren beste elementu aipagarria, lurraren «komunaltasuna» zan. Artzai-garaian lurak Erriarenak ziran, guztionak, komunalak.

Artzantzaren ondorengo Nekazaritzak ekarri zuan lurraren «bakoitzasuna»; etxe bakoitzak bere lurak izatea.

Izan ere, artzaiari etzitzaion konbeni lurak iñor berezirenak izaterik; lurak, «tirriarenak»; lurak ardiarentzat «larre» izatea konbeni zitzaion artzaiari, artaldea nun «larratu» libre izan zezan.

Nekazariari, kontrara, lurra «bere» izatea konbeni zitzaion; berak bere eskuz landutako «uzta» berea duan bezela, berak bere eskuz landutako soroa ere «bere» izatea... artzaiaren konbenentziaren kontra, bañan Erriaren bentaja aundi baterako, nekazaritzaren bitartez uzta ederrak lortuaz....

Ola, Nekazaritzaren bidez etorria degu lurraren bakoitzasuna.

Artzai-garaian lurak «larre» ziran.

Nekazaritzaren garaian asten dira lurak «soro» eta etxe bakoitzaren «baztar» izaten.

«Item en razón de los seguimientos (Aaide Nagusien burruka-aldiak) de los Parientes Mayores en feudo de los vandos: que los dichos hijos dalgo vecinos e moradores de la dicha Villa de Santa Cruz y de las dichas Collaciones, que si quisieran seguir, que sigan, según que los de las Villas de Miranda de Iraurgi (Azcoitia) e de Salvatierra de Iraurgi (Azpeitia) e de Villa Mayor de Marquina (Elgoibar) seguiere; e esso mismo que los dichos Escuderos hijos dalgo, vecinos e moradores de la dicha Villa de Santa Cruz e de dichas Collaciones, que vayan e sigan con el solar de Yraeta o contra cualquier con quien quisieren, contra cualquier personas que el dicho Solar o otros cualesquier Parientes del Vando hovieren contienda, si quisieren salir con la dicha Villa de Guetaria o su Vecindad o sus Vecinos, si algunos se vinieren de aquí adelante...».

Garbi ageri danez, Aaide Nagusien tingladoak irauten du oraindik, zuen Erri Bildua sortuta andik amaika urtera ere. Eta mardul ta sendo jarraitu gañera, ondo organizaturik; bere lege ta oitura barruan, ofizialki legalizaturik. Endrike III'aren Kartak ez bait du esaten, ordea, leengo lapurretak jarraitzen ote zuten ala ez... Nolanai dala, Erregeren Kartak Yraeta-etxea garbi aipatzen du — Ganboatarrak inguru ontan zuten Etxerik sonatuen...

### **Aizarna, Gaskuña'ko mugan.**

Erregeren Kartaren beste puntu bat, Aizarna Nafarroa'ko ta Gaskuña'ko mugan ipintzea da.

Bañan ori ez bait da arritzeko kontua; garai artako Paperetan askotan esan oi dira olako gauzak. Oyartzun'go Olagizonen Fueroak Oyartzun Inlaterra'ko mugetan ipintzen du. Zergatik uste dezute? Oyartzun Endaya'ko mugan zegolako, eta XIV gizaldian Endaya Inlaterra'ren mendean arkitzen.

Aizarna'ren kontuan, Aizarna Oyartzun bezain alde Gaskuña'ren muga ez arkitu arren, gerra aipatzen bait du paperak, gerra-garitan, Gaskuña'ko gerraren zipristiñak errex iristen ziran, lurrez ez bazan, itxasoz, Aizarna'raño, Getaria'ren bitartez. Aizarna eta Gaskuña, Getaria'ren bitartez elkarren auzo ziran, elkarren muga.

Getaria'ko Portua, Karlo Magno'ren gerrateetan, 778'gn. urtean, garbi-garbi azaltzen da Fernan Gonzalez'en Poeman; (ikus 137 vers.)

«al puerto de GITAREA / fycieron luego tornada»

Fuga de vocales baten bitartez «Gitarea» ori, Getaria bait da.

**Arresi muralla.**

Beste gauza berezia, Erregeren Kartak aipatzen duana, erriko arresi muralla da. Kartaren erderazko textoak onela bait dio: «... que la puedan cercar en la manera que ellos entendieron que mejor se podrían defender».

Arresi au ez da, gaurko Ondarribia'koa edo leengo Donostia'koa beze-la, arri landuzkoa; bestelakoa baizik: kaleko etxe-illaraz egiña; etxeak errenkadan, aurea atearekin Plazara begira dutela, eta atzea, aterik gabe, kanpora, leioakin bakarrik. Eta gañerakoan erriak nunean-nunean arkuzko atea —Portaleak—. Gaur oraindik olako bi Portale bai bait ditu erriak, ederki kontserbatuak, bi puntu egokitan, beste erri gutxitan ikusten dan bezela: Mondragoe'n batzuek, Leinz'ko Gatzaga'n bat edo beste...

**Izena. «Santa Krutz Zestona'ko».**

«Santa Krutz» izenak ere ba du bere zer-aitpatua: izen ori Zestona'ko leku orretan, leendik izan bear zuala, ez orduan Erregek sortua, leendik zertorena baizik, leendik an zegona, bear bada, denbora bateko Tenplarioak egondako Elizaren bat, alegia. Santa Krutz eta «Vera Cruz» eta San Salvador, «Salbatore»rekin, Tenplario-kutsu aundiko izenak dira baztarretan, Indar aundiko ta Zabalkunde aundiko Ordena izan bait zan «Jerusalen'go Templetarren» Ordena au, 1313'gn. urtean desegiña izan zan arte.

Gañerakoan exigentzi geixkozkoa eritziko genduke gaur guk Errege Jaunaren Kartak azkenean ipintzen duana: Errege Jaunak beretzat reserbatzea, alegia, Zestona'n diran eta izan ditezken urrezko, zillarrezko eta «urdinezko» miatz mina guztiak, ez dakigun arren, zer izan ditekian, irugarren lekuan aipatzen dan «urdin» dalako ori: kobrea ote zan, ala beste «lapisla-zuli» edo olako zerbait ote zan.

**«Zestona» izenaz pixka bat geiago.**

Bañan jorrai dezagun pixka bat geiago «Zestona» izenaren soroa. Egin ditzagun hipotesis batzuek, tesis segururik ezin egin dezakegun ezkerro.

«Zestona» Errege Jaunaren paperetan «Zestona» azaltzen da askotan: «Zestona» «s»rekin ez baño, «Zestona» baizik, «z»rekin.

«s»rekin esatea, «Zestona», izan liteke, ez itzaren jatorriz, erderazko «cesto»aren interferentziaz baizik; ez itzaren jatorriz.

Bizkai'an ba da erri bat «Sesta» bi «ese»rekin esaten dana.

Araban ba da beste erri txiki bat «Zestafe» izena duana; paper zarretan «Zestabe» azaltzen dana; «f»ren ordez «b»rekin azaltzen dana, salbo-ta «Basabe» ta «Intxaurbe» bezela.

Nolanai dala, ez da dudarik, izen oietan zerikusirik ez duala erderako itz «cesto»k; or dabillen «zezt» edo «zest» ori, euskal radikal bat dala, euskal radikal jatorra.

Bañan, dana-dala, ez dakigula radikal orrek erderaz zer esan nai duan.

Izenaren bukaerako «ana» ori, berriz, —eta berdin zenbait «ano» eta «ana»-, oroit giñezke, bukaera ori, alegia, beste izen askotan arkitzen degula, naiz gure artean, naiz emendik kanpora Barcelona, Gerona, Badalona, eta Lisboa, leen Lisbona izana: Lexona, Lazkano, Audikana; «n» inter-vocalica erdian daramaten itzak. Eta «n» inter-vocalica, ain errex galtzen dan letra danez, ainbeste naaskillu errietan sortu dituan elementua: *Lazkano*, ala *Lazkao*; edo-ta *Lazkau*; *Lemona* ala *Lemua*; *Lejona* ala *Lexua*, edo-ta *Leyua*...

Nolanai dala, zuek ez aaztu, zuen «Zestona»ren bukaerako «ana» orrek, bear bada, ez duala zer-ikusirik izango, gauzaren ondasunarekin edo txartasunarekin; ni ere «Lekuona» naiz, bañan nere «ana» orrek ez du zerikusirik onarekin eta txarrarekin, «une»rekin baizik; orain berreun urteko paperetan gure apellidua «Lekuna» zan, «Lekuna» edo «Kekune»; kaligrafo ona bañan euskaldun arlotea zan Ixkribaren bati okurritu zitzaion, gure aintzagarri izan nai duan «LekuONA» ezartzea... Zer LEKUNA gero? LEKUONA!! Zestona'gatik nik ez diot ezer; zuek alertan jarri bakarrik...

## UROLA IBAIAZ BESTE ALDEAN

Orain, aurrera jarraitu baño leen, oroi dezagun leentxuago esan deguna: Artzai-erriaren mugak ibaiak zirala, ibaitik ibaira; beraz, Aizarna'ren juridikzioa, Urola ibaian bukatzen zala. Urol'ren beste aldean, an asten bait zan beste Artzai-erri bat, bear bada, «Itziar» zeritzana —Endoya-mendi, bizkar-ezur zuana—. Eta kontu ortan Aizarna'ren juridiziotik kanpora gelditzen ziran:

- 1) Arkeologiako Lilitarren jauregi gotiko ederra; eta
- 2) Prehistoriako Ekain koba famatua; eta beste gai batean — Literaturagaian ain famatua dan
- 3) «Alos Torrea»ren leyenda famatua; gure adiskide zestuatar Iñaki Azkune jaunak esango lukean bezela leyendako, «Alos-Torrea»—«Deba'ko Alos-Torrea»— Iziar'ko Lasturre baizik... (4).

---

(4) Ba da gure Folklorean kanta bat «Alos-Torrea» deritzana, eta kantarekin batean leyenda interesgarri-interesgarri bat, izen berarekin esagutzen dana. Ez da historia. Leyenda da. Historiaren aldetik bat-ere ajolarik ez duan gauza. Bañan Literaturaren aldetik zerbait garrantzi duena: «gertakaria nun gertatua bezela ipintzen du leyendak?».

Leyendak bere kutsu guztia, Deba-ingurukoa du. Eta, ain zuzen, ba dira Deba-inguruan bi leku, gauza onen kutsu zerbait dutenak:

- 1) «Alos-torrea» deritzana, Deba-kale-inguruan nunbait; eta
- 2) «Lastur» edo «Lasturre» deritzana, Itziar-lurrean, mendi-tontor batean torre «Gaztelua» deritzana eta aldamenean «Urkulu» deritzan beste tontor bat duana.

Iru gai, itzaldi baterako bizi ederrak lirakenak; eta, naiz-ta antzinako Aizarna-ko lur jatorretik kanpora gelditu, gaur ez bait dira Zestona'ko lurretik kanpora gelditzen; bañan, ala ere, denboraren eskasiagatik, bazterrera utzi bear ditugunak. Eta barkatu.

## BERTSOLARIAK ARTZAI-KULTURAN

Bañan guzti orretaz gañera beste detalle bat ere ba degu esan bearrik oraindik eskuartean daraabilgun Artzaiaren Kulturari buruz: Artzaiak, beren-berenez, oso arte-zaleak zirala; soñua bazan, dantzak baziran, bertsolariak baziran; guzti ortan oso arte-zaleak bait ziran, eta guk gai ortan degun guztia, Artzaiai zor diegu.

---

«Alos-torre». «Lasturre», «Lastur»... Biotatik zein da gure leyendaren leku-lekua? Deba-kalekoa? ala Itziar-mendikoa.

D. Juan V. Araquistain'ek bere «Tradiciones vasco-cantabras» Liburuan Deba'ko Kallean-edo ipintzen ditu berak ezagututako Alos-torre Jauregiaren orma zaarrak.

Zestua'ko seme Iñaki Azkune jaunari okurritu zitzaion bein, Deba'ko «Alos-torrea» ez baño Itziar'ko «Lasturre» ez ote zan gure historietako torre dalakoa.

Historiaz axolarik ez duan gauza; bañan Literaturaren sorotan aipagarri izan litekeena..

Lastur'ek bere alde gure Literatur-troxu interesgarri bat dauka: «mondragoe'ko kantak» deritzan Kanta-bilduman ageri dan «Andre Milia Lastur'ko»ren illetako eresi aipagarri-aipagarria; zazpi aldiz azaltzen bait da illeta ortan «Lastur» izena.

Ala bahiña kontrario da Milia:  
azpian lur otza, gañean arria:  
Lastur'era bear dozu, Milia.

.....  
Jausi da zerurean arria;  
aurkitu dau Lastur'en torre barria;  
edegi dio almenaren erdia;  
Lastur'era bear dozu, Milia;  
Arren, ene Andra Milia Lastur'ko

.....  
Zerurean jausi da abea;  
jo dau Lastur'ko torre gorea

.....  
Erribalean Andra Milia Lastur'ko.

Ez bait zan Lastur, nolanaiko izen merkea.

Ala ere, gai ontan bertan, «Lastur» formaren kontra bizi da Deba'ko «Alos-torre» —forma ere, gure Kantutegian ots— aundia duan kanta eder batean. Onela bait dio:

Alos Torrea, bai, Alos Torrea!  
Alos Torre'ko eskallera luzea!  
Alos Torrean nengoanean goruetan,  
bele beltzak, kuakua, kuakua, leyoetan.

Bi forma, bi bertasio elkarren berdintsuak; bañan «Lastur-forma» zaarragoa; bertasio zaarra. «Turre» formak orai bi milla urteko forma gordetzen bait du: latin-forma.

Gañerakoan, naiz bat, naiz bestea, —Turre, naiz Torre— biok Gipuzkoa'ko kostaren defentsarako antziña-antziña zeuden gaztelu ta torreak ziran. Kostan erririk etzanean —Arztai-garaiko kontuak— gazteluak ziran pirata-itxas-lapurren kontrarako genituan defentsagaiak: gazteluak, torreak; aietan bat, eta zaarretakoa, ain zuzen, «Lastur» bere «Gazteluarekin eta bere Urkulu'rekin, salbo-ta, geroko Donostia'n gazteluarekin batean «Urgull» bat zegoen bezela. Kontu zaar-zaarrak danak...

Bañan bereziki gai ortan Artzaiari atxikien izan zitzaiona, Bertsolaritza izan bait zan, nik uste, Bertsolaritza, iñork bada-ta Artzaiak sortutako Arte Ederra dala...

Eta Zestua'n ari geran ezkeru, eta bereziki bertsolaritzari gagozkiola, esan dezagun, esan, azken-urte otan izan degun bertsolaririk guztion artean ixtimatuena, Uztapide, Aizarna-ta-Zestua inguruko semea izan dala, Endoya'ko Uztapide baserrian jaioa... aurtan il bait zaigu, eta ikustekoa izan bait da, aurtengo Abuztuan Oyartzun'go Elizan egin zaion illeta, millaka askozko eder ikusgarria...

Aaztu gabe, leenagoko bertsolari famatuen artean Usurbil'go Udaarregi bat ere, etzala Usurbil'go semea, semez ura ere emen inguruko Aya'n jaioa zala, Aya'n jaio, eta Usurbil'go Udarregi baserrian bizi zala, ainbeste bertso-burruka famatu Asteasu'ko Pello Errota'rekin bere bizian egin izana... Burruka aietan beti ere Erriaren sinpatia ta botoa Udarregi jatorraren alde izaten bait zen, gero gure garaiko Uztapide'rentzat izaten zan bezela...

Bertsolaritza, Bertsolaritza! Beti ere Euskalerriko Artzai-kulturaren fruitu mardul ederra!... Zestua Erriarekin ain lotu-lotua...

## BUKATZEKO

### Bilduma

Bukatzeu, Itzaldi onen bildumatxo bat egingo dizutet, Moises'en estiloan. Labur-labur.

Asieran, Gipuzkoa'ren erdian Ernio zan. Eta Ernio'ren inguruan Aizarna. Aizarna, bere Santa Engrazia'rekin.

Eta Aizarna, artzai-erria zan. Erri banatua, erri zabala, Oria ibaitik Urola ibairaño. Dana mendi, dana bizkar. Larre-on-erri.

Aizarna noiz sortu zan, iñork ez daki. Millaka urte. Eta orain seireun urte — gaurko egunez, ain zuzen — Kastilla'ko Errege batek Kastilla'ko D. Juan Lenengo'k — Aizarna orren barruan Erri Bildu bat sortu zuan: ZESTONA.

Euskalerriak ortarako eskubide-emanik, Kastilla'ko Erregeak —eta berdin Bizkaiko Jaunak— ba zuten ortarako aalmen; olako Erri Bilduak sortzeko aalmen, alegia. Erriak emandako eskubide ta almen.

Aizarna'ko jendeak izan ziran, Erregeari eske ori egin ziotenak: Mese-de ori egin zezauela, Aundizkien geiegikeriakin ezin bizi zitezkeala-ta. Erri Bildu bat bear zutela. Erri Bildu bat, Aundizkiai gogor egiteko; eta, ortaz gañera, Prantzi-aldeko Gaskoien Gerrateetan, etsaien erasoetatik obeto beren buruak defendi al izateko. Berak Gaskoien mugaetan bizi zirala-ta —esan dizutet nola, Getaria'ren bitartez—.

## ZESTONA

Eta Erregek on-artu zuan eskea eta opa Erri Bildua, bere arresi eta muralla-ta guzti... Ortarako leku egokia Erregek berak seinalaturik eta Erriaren izena ere ezarririk: «Zestoa'ko Gurutze Santu» edo «Gurutze Santu Zestona'ko»...

Olaxe izen zen zuen Erriaren sorrera, Moises'en estiloan labur-labur esan-da. Gaur seireun urte, 1383'gn.go Agorraren 157an.